



2017/00000473 DEKRETUA

DEKRETUA: Hernanin, 2017/03/24

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakunde Autonomoaren 2016ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kudeatzaile-Kontuhartzaile ordeak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehena.- Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakunde Autonomoaren 2016ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak:	261.310,52
2.- Kobratu gabeko saldoak:	591.705,37
3.- Ordaindu gabeko saldoak:	555.175,11
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2-3):	297.840,78
5.- Saldo kobragaitzak:	12.690,29
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5):	285.150,49
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:	0,00
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):	285.150,49
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	163.870,35
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	118,73
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	59.586,11
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):	223.575,19

Informazio osagarria:

14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	184.619,80
15.- Kredituak txertatu ondoren Gerakin erabilgarria (8-14):	100.530,69

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Luis Intxauspe Arozamena alkateak agindu eta sinatu du, eta nik, Miren Arantza Arrazola Iturbe udal idazkariordea naizenez, ziurtatu egin dut.- Sinatua: alkatea. Sinatua: udal idazkariordea

